

EUSKARAREN Berripapera

aurkibidea

1 • Joan Melià, Balear Uharteetako Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia

2 • **PERTSONAJEA:** Polixene Trabudua, mitinlari jaioa, bidegile

• **LABURRAK:** Arrigorriaga eta Arrankudiagako kantak

Euskara-armeniera hiztegia

Lekeitioko berbak

3 • "Honela ikasten dira hizkuntzak"

• Carme Junyenten hitzaldia Iruñean

4 • *Ponte izendegia*

• *Mintzo naiz isilik..., hitza jolas eginik*

Joan Melià, Balear Uharteetako Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia
"Geure hedabideak behar ditugu, hizkuntzarengatik eta Balear Uharteetako gizartearen kohesioarengatik"



ZALDI ERO

Euskal Herrian izan zen urtarriko bigarren astean Joan Melià, Balear Uharteetako Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia. Jaurlari-tzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuorde-tzak gonbidaturik heldu zen gurera.

oraintxe jaso ditugu transferentziak eta badakigu hainbat mediku eta erizain dagoela katalanez ez dakiena, eta horixe dugu hurrengo lana, osasunean ari diren eta katalanez ez dakiten langileentzat ikastaro trinkoak eratzea.

B.: Eta hedabideak?

J.M.: Gure gobernuak ez du hedabiderik, alegia, irrati edo telebista autonomikorik ez dugu. Dugun defizit larri horietarik bat da, eta hurrengo legealdian horri ekin beharko genioke. Ez bakarrik hizkuntzarengatik, Balear Uharteetako gizarte-kohe-sioarengatik baizik. Gaur egun, toki telebistak, irratiak eta aldizkariak ditugu katalanez.

Berripapera: Zertan da Balear Uharteetako hizkuntza politika?

Joan Melià: Duela bi urte eta erdi ekin genion lanari. Aurretik, katalana eskoletan irakastea, horixe zen hizkuntza politika. Ez zegoen hizkuntza ordezkapenari aurre egingo zion benetako hizkuntza politikarik. PPK ez zuen interesik izan ordezkatzeko prozesua iraultzeko, edo gizartearen norabideari eragiteko.

B.: Harrezkero, zein asmo izan dituzue?

J.M.: Batetik, irakaskuntzako lana areagotzea. Oraintxe, biztanle kopurua beldurgarri ari da hazten, inmigrazioa dela eta ez dela. Gainera, hainbat jatorritakoak dira etorkinak. Helduen irakaskuntzan ere inmigranteentzako ikastaro bereziak erazten ari gara. Lehentasun bat dugu: Balearretan bizi diren denek katalanez ulertzea, bertan jaioa izan, edo bertan lekutua.

B.: Zertan dira hizkuntza politikaren gainerako alorrak?

J.M.: Gure helburu da administrazio publikoa erreferente izatea katalanaren erabileran, eta gogotik ari gara. Oraintxe, esaterako, nahitaezko da katalanez jakitea funtzionario izateko. Azpiegitura informatikoa ezarri dugu administrazioak katalanez lan egin dezan eta ondorioz, gobernuko departamentu gehienetan katalanez egiten da lan. Gobernutik egiten diren kanpaina denak katalanez egiten dira. Benetako arazoa osasun arloa da,



ZALDI ERO

B.: Eta zertan da kaleko giroa?

J.M.: Horri dagokionez, bertakoez katalana erabiltzeko modua izan behar dute. Esaterako, merkataritzan sartu gara eta legea aldatu dugu, esanez saltoki guztietan bezeroari bi hizkuntza ofizialetan kasu egin ahal izango dion –ulertuko dion– langilearen bat behar duela, izan denda handia ala txikia, eta hiru langile baino gehiago duten saltoki denetan bezeroari katalanez ere hitz egingo dion bat behar dela. Errotulazioan, finakoak gutxienez katalanez egon behar duela dio legeak.

Laburrak

Arrigorriaga eta Arrankudiagako kantak

Arrankudiaga, Arrigorriaga eta Orozkoko udalek inguru horretan oso ezagun diren 77 kanta biltzen dituen liburuxka argitaratu dute. Kantutegiak eskuliburu itxura du eta 'Haurtxoa seaskan', 'John Braun', 'Hator, hator', 'Aita-semeak' eta 'Boga-boga' kantak biltzen ditu, hau da, haurrek zein helduek kantatzeko moduko abestiak.

4.000 aleko tirada egin dute hiru udalek eta doan banatuko dituzte herrian.

Euskara-armeniera hiztegia

Euskara-armeniera hiztegia argitaratu dute International Linguistic Academyk (ILA) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Era honetako lehen hiztegia da, 20.000 hitz baino gehiago biltzen ditu eta Armenian euskara lantzen ari diren ikasleei zuzendurik dago. Oraintxe, Armeniako Estatu Unibertsitateak Euskal Armeniar Ikasketarako Zentroa abiarazirik du eta euskalaritza irakastea du helburu.

Hiztegia ez da euskara eta armeniera lotzen dituen lehen lana, lehendik ere euskal literaturako hainbat lan itzulirik dituzte eta armenieraz.



Lekeitioko berbak

Lekeitioko berbak izeneko liburuxka kaleratu du Lekeitioko Udalak Resurreccion Maria Azkueren heriotzaren 50. urteurreneko ekitaldiekin bat eginez. Lana ondu duen taldeak hark egindako *Diccionario Vasco-Español-Francés* mardula erabili du oinarri. Udalaren guraria da aurre-

koen berbeta aberatsa berreskuratu eta gaur egungo premetara egokitzea.



PERTSONAJEA

Polixene Trabudua, mitinlari jaioa, bidegile



Polixene Trabudua (Sondika, 1912) Eusko Alderdi Jeltzaleko mitinlari ospetsua izan zen 1936ko gerra baino lehen Haydée Agirre, Julene Urzelai eta Maria Teresa Zabalarekin batera. Emakumezko laukote famatua osatu zuten.

Polixene ez zuen etxeko giroak abertzaletu, senarrak baino. Bilboko Athletic taldeko jokalaria Jose Mandalunizekin ezkondu zen, eta berak berotu zuen, artean ezkongaietan. Primo de Riveraren

diktadura garaian gora egin zuen abertzaletasunak eta iturri horretatik edan zuten bi gazteek. Magisteritza ikasi eta andereño jardun zuen Sondikako ikastolan. Euskarazko eskolak ere eman zituen, Lauaxetaren ondoan. Esteban Erkiagak berak bultzatu zuen mitin egitera, eta laster jakin zuten horretarako dohain aparta zuela. Mitinlari jardunak kartzela ere ekarri zion 1933an, independentziaren alde ari izan zela eta. Idazle ere garaituan ekin zion, gaztelaniaz, *Jagi-Jagi* aldizkarian. 1937an, Gernikako bonbardaketaren ondorioz ihesi joan behar izan zuen Polixenek, hiru seme-alabak harturik. Donibane-Garazin Jaurlaritzak haurrentzako egonlekua antolaturik zuen eta bertan lekutu ziren. Han zirela sortu zen Bigarren Mundu Gerra eta Iparraldetik ere alde egin behar izan zuten, Parisera.

1950ean Bilbora itzuliagatik, ezin izan zuten frankismoan etsi eta Venezuelara jo zuten. Berrogei urte egingo zituzten han, Caracasen eta Maracaibon. Irakasle jardun zuen bertan Polixenek, eta idazten hasi zen berriz. *Artículos de amama* (1991) eta *Crónicas de amama* (1997) liburuetan bildurik daude haren lanak. Oraindik orain, berriz, haren biografiaren berri eman digu Elixabete Garmendia idazleak *Bidegileak* bildumako 24. alean.



"Honela ikasten dira hizkuntzak"

Hizkuntzak baldintzarik egokienetan ikasteko aholkuak


Europar Batasuna eta Europako Kontseilua modu askotara ari dira lanean hizkuntzen ikaskuntza arrakastatsua izan dadin. Iaz, "2001, Hizkuntzen Urte Europarra" izan zela eta, hizkuntzak baldintzarik egokienean ikasteko aholkuak biltzen dituen gida kaleratu zuten. Bi erakundeek aldarrika dutenez, hizkuntzak ikasteak denbora eta ahalegina eskatzen du baina denon esku dago eta merezi du.

"Ez dakit nola hasi"

Milioika lagunek hitz egiten dute bigarren hizkuntzaren bat, baina beste asko ez dira gai sentitzen. Europa hizkuntzak ikasteko toki paregabea da, kultura eta hizkuntza-komunitate anitz bizi baitira elkarrekin. Nola hasi ez dakitenei ere hainbat aholku praktikoa eskaintzen die gidak.

Zahar direnei, ikasteko beti dagoela parada esaten die. Askotan entzuten dugu hurrek bakarrik ikas ditzaketela erraz hizkuntzak, baina ez da egia: helduek ere ikasten gozaten dute eta azkar bereganatzen dituzte edukiak. Gainera, gaur egungo metodoak atseginak, gustagarriak dira, komunikazioa errazten dute eta beste hizkuntza batzuk hitz eginez gozatzeko aukera eskaintzen dute.

Akatsak egiteko lotsak bizi direnei, berriz, okerrak hizkuntzaren ikaskuntzaren zati direla eta jendeak ulertuko dituela esaten die. Ez kezkatu eta hizketan saiatu beharra dago, beraz.



Hasi baino lehen

Asko dira bigarren hizkuntza bat ikasteko izan daitezkeen arrazoi eta helburuak: nor bere buruarekin gustura egotea, beste kultura bat ezagutzea, lanean komunikatzea, lan hobe lortzea, kanpora joaten garenean moldatzeko gauza izatea, internet erabiltzea... Beti, ordea, hizkuntza bat ikasteak beste pentsamolde eta jarrerak ulertzeko aukera emango digu.

Hizkuntza ikasten hasi baino lehen komeni da ikasketa-prozesua eguneroko martxara ahalik eta ondoen egokitzea, emaitzetan eragina izango du eta. Zehaztu, hortaz, non eta nola ikasi nahi dugun, eta komeni zaizkigun metodo eta materialak: mintzamen-eskolak, audio-zintak, testu-liburuak, internet-a, CD-ROMak, bideoak, gramatika-ariketak...

Aholku praktikoa

Europako Kontseiluak eta Europar Batasunak elkarrekin egindako gidak hainbat aholku praktikoa ere ematen ditu. Adibidez, garrantzi handia ematen dio asko irakurri eta entzuteari (egunkariak, aldizkariak, irratia, telebista). Idazteko aukera bat bera ere ez galtzeko gomendatzen du: posta elektronikoa, postalak, eskutitzak... Eta, jakina, hitz egin, ahal den guztia, izan lagunekin, atzeritarrekin edo dena delakoarekin. Pertsona gehienek ez dute lortzen atzerriko hizkuntza bat jatorriko hiztunen ahoskeraz mintzatzea, baina horrek ez du ardura: elkar ulertzea da garrantzitsua.



Carme Junyenten hitzaldia Iruñean

Hizkuntza bat baino gehiago jakitearen abantailak

Joan den abenduaren 13an hitzaldia egin zuen Iruñeko Hizkuntza Eskolan Carme Junyent hizkuntzalari katalanak. Hitzaldiaren gaia: "Gauza handia da hizkuntza bat baino gehiago jakitea!" eta, bertan, hizkuntzak eraginkortasunez ikasteko zenbait aholku eman zituen hizkuntzalariak. Era berean, hizkuntzak ikasteko argudio nagusiak zein diren ere adierazi zuen, alegia, elkarrekin bizitzeko, egoerak bestela ikusteko, aukeran informazio eta ezagutza handiagoa izatearren, egokitze gaitasun handiagoa izateko, komunikatzeko, lan-egoera hobetzeko, eta zoragarria eta libertagarria delako".

*Euskal Izendegia: Ponte izendegia***2.264 euskal izen, Erregistro Zibilean erabiltzeko moduan**

Lan berria du kalean Euskaltzaindiak, hau da, *Euskal Izendegia: Ponte izendegia*, euskal izenen katalogoa zehazten duen argitalpena. Izendegi hau, eta Akademiak aurretik argitaratu zuen deiturei buruzko lana, legezko araudi ditugu eta, beraz, Erregistro Zibilean erabiltzeko modukoak, izan izenak emateko, itzultzeko, edo euskal izen eta deituren grafia egokitzeko.

Liburuak 2.264 euskal izen biltzen ditu, 834 gizonetzkoenak eta 1.430 emakumezkoenak, eta bost taldetan sailkatzen dira: lehenen, euskal tradiziozko izenak (Eneko, Andere, Otsanda...), tradizio europarreko izenak (Peru, Monika, Frantziska...), amabirjina izenak (Ainhua, Leire, Irantzu...), Sabino Aranak eta Elizaldek asmatuak izenak (Kepa, Miren, Kirmen...), eta beste zenbait izen, arruntak eta toponimoak, gaur egun erabiltzen direnak (Oihana, Saioa, Ibai...).

Euskal Izendegia: Ponte izendegia ondu ahal izateko, aurretik argitaraturiko izendegietan oinarritu da Euskaltzaindia, 1966an Aingeru Irigarai eta 1972an Jose Mari Satrustegik egindakoetan.


Izendegi berria salgai da liburudendetan 6 eurotan.



Mintzo naiz isilik... hitza jolas eginik

Juan Kruz Igerabidek haurrentzako igarkizun bilduma kaleratu du jolas egiteko, eta ingurua eta mundua hobeki ezagutzeko. Liburu dotoreak Lorena Martinez Oronozek eginiko irudiak ditu eta Igerabidek berak asmatuak 150 igarkizun, era poetikoan idatzirik. *Mintzo naiz isilik...* 7-8 urtetik gorako haurrei dago zuzendurik eta guraso eta haurren arteko zubi ere izan nahi du, bai solas eta bai jolaserako. Igarkizunak gaika sailkatuak ageri dira: janariak, trenak, animaliak, zerukoak, jantziak... eta erantzunak aldiz, liburuaren azkeneko atalean agertzen dira era jostalari eta grafikoan.

Mintzo naiz isilik... joan den urtean Jexux Mari Olaizola *Txilikuren Axa mixta zilarra* liburuarekin Elkarlanean argitaletxeak hasi zuen *Dona-dona* saileko bigarren lana da.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: l-Sosoaga@ej-gv.es

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

e-posta: